

**ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA**

5474

IRAGARKIA, «Etxebizitzetako Leihoen Renove Plana» energiaren alorreko inbertsioak laguntzeko programarena.

2008ko otsailaren 25ean, Energia Aurrezteko eta Dibertsifikatzeko Institutuaren (IDAE) eta Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) artean sinatutako lankidetzarako hitzarmen-esparruaren ondorioz, Etxebizitzetako Leihoen Renove Plana iragarri zen, etxeko alorrean energia aurrezteko xedez.

Laguntza horiek Euskal Autonomia Erkidegoan dauden etxebizitzetako beiratzatutako itxiturak berritzeko inbertsioak sustatzeari begira eratu dira.

Aipatutako programaren oinarriak eskuragarri daude Energiaren Euskal Erakundearen bulegoetan (Bizkaia plaza eraikina, Urkixo zumarkalea 36, 1. solairua, 48011 Bilbao) eta erakundearen web gunean: [www.eve.es](http://www.eve.es).

Laguntza programari buruzko informazio orokorra jasotzeko telefonoa: 94 403 56 00.

Eskabideak aurkezteko epea iragarki hau argitaratu eta biharamunean hasiko da eta 2009ko ekainaren 30ean amaituko da. Eskabideei, eskatzen den dokumentazio guztia bidalita eta behar bezala beteta, EEE-ren bulegoetan jasoko diren hurrenkera edo ordenaren arabera erantzungo zaie, edo dauden diru-laguntzak bukatu arte.

Programaren aurrekontu zuzkidura 876.125 eurokoa da.

Bilbao, 2008ko irailaren 16a.

Zuzendari nagusia,  
JOSÉ IGNACIO HORMAECHE AZUMENDI.

**ENTE VASCO DE LA ENERGÍA**

5474

ANUNCIO del programa de ayudas a inversiones en el Área de la Energía «Plan Renove de Ventanas en Viviendas».

Fruto del Convenio Marco de colaboración suscrito entre el Ente Vasco de la Energía (EVE) y el Instituto para la Diversificación y Ahorro de la Energía (IDAE) el pasado 25 de febrero de 2008, se convoca el presente Plan Renove de Ventanas en Viviendas con la finalidad de reducir el consumo de energía en el sector doméstico.

Estas ayudas están encaminadas a incentivar inversiones en rehabilitaciones de los cerramientos acristalados para las viviendas ubicadas en la Comunidad Autónoma Vasca.

Las bases del programa están a disposición de quien las solicite en las oficinas del Ente Vasco de la Energía (Edificio Plaza Bizkaia - Alameda de Urquijo, 36 - 1.ª planta - 48011 Bilbao) y en su página web ([www.eve.es](http://www.eve.es)).

Para información general del Programa de Ayudas: el teléfono 94 403 56 00.

El plazo de presentación de solicitudes comienza al día siguiente de la publicación de este anuncio y termina el 30 de junio de 2009, siendo atendidas según el orden en que se hayan recibido con la documentación completa, y debidamente cumplimentada, en las oficinas del EVE o hasta el agotamiento de los fondos disponibles.

La dotación presupuestaria del programa es de 876.125 euros.

En Bilbao, a 16 de septiembre de 2008.

El Director General,  
JOSÉ IGNACIO HORMAECHE AZUMENDI.